

Bitxiak agirien artean

Renoko Euskal Liburutegian 60ko hamarkadatik bildutako dokumentuak katalogatu dituzte zenbait adituk

JUAN A. HERNÁNDEZ - Bilbo

1941. urtearen inguruan, Jose Antonio Agirre Belgika aldean zebilen galduta. Euzko Jaurlearitzako zenbait ordezkari AEBetara alde egin zuten eta lehendakaria Europatik ateratzeko ahaleginetan ari ziren handik. Haietako batek agindu zehatzak eman zituen idatziz hura bilatu eta ozeanoz beste aldera eramateko. Dokumentu horien fotokopiak, orain arte ezezagunak, Renoko (Nevada, AEB) Euskal Liburutegiko artxibofuntsen artean aurkitu dituzte, azken urteotan erakundearen eskariz fondo horiek sailkatzen eta antolatzen aritu diren adituek. Lan erraldoi horren emaitzak berriki plazaratu dituzte campusean bertan unibertsitateko arduradunek. Aipatutako agiriez gain, beste hainbat aurkitu dituzte, horietako batzuk bereziki deigarriak; dena den, batzuk besteen gainetik nabarmentzea ez dute batere gustuko lanaren egileek. "Artxiboen artean ez dago bitxirik", dio liburutegiko arduradun Nire Erkiagak, "pertsona batentzat hutsala izan daitekeenak berebiziko garrantzia izan dezake beste batentzat. Beraz, artxibo osoa da harribitxia".

Hain zuzen ere, liburutegiko funtsak ondo katalogatuta edukitzea eta haiek zabaltzea izan da Euskal Ikasgunearen azken urteetako erronka nagusia. Horretarako ezinbestekoa zen datu basea iragan otsailean sortu zuen Imanol Irizar HABEko artxiboaren sortzaileak. Haren lekukoa hartu zuen gero Erkiagak. Biekin batera, beste lau adituk parte hartu dute lanean: Iñaki Goiogana historialari eta Sabino Arana Elkarteko artxiboaren arduradunak, Araby A. Green Nevadako Unibertsitateko Liburutegi Nagusiko kideak, eta Michelle Rachal eta Hilda Centeno Euskal Liburutegiko kideek. Aztertutako materialak (dokumentuak, argazkiak, ikus-entzunezko materialak eta bestelakoak) 239 kaxatan zeuden gordeta. Batzuk Euskal Herriko eramandako artxiboak dira. Horien artean 1936ko gerrarekin lotura duten dokumentuak daude, adibidez José María Huarte de Jáuregui Zarauzko Komandantziaren buru izandakoak bildutakoak, Francoren tropek Gipuzkoan egindako errepresioaren berri ematen dutenak. Beste bilduma interesgarri bat osatzen dute Philippe de Veyrin Ipar Euskal Herriko historialariaren dokumentuek. Horrez gain, Nevadako Unibertsitatetik igarotako irakasle zein ikasleek utzitako dokumentuak eta euskal etorkinei buruzko artxiboak nabarmendu behar dira. Euskal Liburutegiko arduradunaren iritziz, funtsok garrantzi handia dute Euskal Herriko historia dokumentatzeko.

Illo horretan ikertzaileek bereziki garrantzitsutzat jotzen dituzte Nevadako ardi jabeak biltzen zituzten bi elkarteren artxiboak. 1942tik 60ko hamarkadara arte Estatu horretara joandako euskal artzainen gorabeherei

buruz argibide ugari ematen dituzte dokumentu horiek. Hain zuzen ere, ipar-amerikarrek Mundu Gerran esku hartzea erabaki zutenean, kanpoko artzainei ateak zabaltzea erabaki zuten artaldean jabeek, bertako mutil gehienak frontearen baitziren. "Baina agintariek ez zuten batere begi onez ikusten artzainak Espainiatik ekartzea, Francoren mende baitzegoen", dio Goioanak, "beraz presio-taldeak osatu zituzten euskaldunei ateak ireki ziezazkieten". Artxibategian gordetako dokumentuek lobby horiek erabilitako "trikimailuak" erakusten dituzte, beste testigantza batzuekin batera.

Huarte Jáureguiren artxiboa, berriz, Bilboko liburu-saltzaile bati erosi zioten, Zarauzko Komandantziaren burua hil ondoren hark etxean gordeta zeuzkan hainbat paper saltzea erabaki baitzuten ondorengoek. Besteak beste, Errepublikaren aldeko egindako galdeketen testigantza ugari jasotzen dituzte dokumentu horiek. Alfredo Espinosa Agirreren Gobernuako Osasun sailburuaren atxilotaren berri ematen duen argazki-sorta interesgarri bat ere badago tartean. Hain zuzen ere, Espinosa 1937ko lehen hilabeteetan atxilotu zuten Zarautzen, Frantziatik Euzko Jaurlaritzaren hegazkin batean zetorrela, pilotuak desertatu eta lurreratzea erabaki baitzuen. Une hori jasotzen dute gaztelaniaz "hegazkin gorria" leloarekin sailkatu zituzten irudiek. "Espinosaekin batera atxilotu zituztenen galdeketa ere badaude multzo horretan", gaineratu du Goioanak, "handik gutxira sailburua fusilatu egin zuten".